

## **KUZKOKO BIDEA**

Olain Olaziregi Berrouet, 13 urte

*Senpere*

Bideak hertsiaik ziren eta lohiz estaliak, bezperan Tlaloc-ek bere haserrea erakutsi zuen; ekaitz izugarri bat izan zen. Oihaneko hezetasuna gero eta gehiago sentitzen zen, burua biratuz arbolak baizik ez ziren ikusten ahal, eta, ehun pertsonako taldea osatzen bagenuen ere, bakarrik sentitzen nintzen, Inken erregina izan zen nire amatxi gabe.

Aste bat bakarrik hila zela, baina niri eternitate bat iruditzen zitzaidan. Berak ninduen hezi, hari esker nintzen nintzena, bizi osorako zorretan izan nintzen. Espero nuen zen tokitik ikusten ninduela eta nitaz harro zela. Zinez, bera bezain erregina ona izan nahi nuen, baina ez zen erraza 16 urte baizik ez nituen eta jadanik 30 urteko pertsona batek bezainbat erantzukizun nituen. Nik, ordea, nahiko nukeen nire adineko batek bezala bizi. Viracocha munduaren sortzaileak ez zuen horrela nahi izan, eta denek dakigu inork ezin diola bere patuari ihes egin. Beraz, hil arte erregina izanen nintzen eta nire eginbeharrak ahal bezain ongi betetzeko asmoa nuen, nire amaxiren oroitzapenez eta ohorez.

Hala, erabaki nuen urtero Machu Pichutik Kuzkoraino egiten zen bidaia egitea; bidaia horren helburua gerlan preso hartutako gerlariak Kuzkora eramaitea zen, gero sakrifikatuak izaiteko. Mendeak eta mendeak ziren urtero bidaia hori egiten zutela eta urte hartakoa nik nuen antolatu. Biziki harro nintzen egiten ari nintzenez. Erran behar da hiru egun lehenago ez nuela behin ere pentsatuko garaiz amaitzen ahalko nuela.

Baziren bost egun ibilki ginela eta beti gauza berdinak ikusten genituen: arbolak, belarra eta noiztenka erreka bat. Denak unatuak ginen, denek Kuzkora lehenbailehen ailegatu nahi genuen. Gaua iristean, ur-jauzi baten bazterrean gelditu ginen. Denek atsegin hartu genuen etzanik eman ginelarik. Gero, hostoekin txabolak egin genituen. Arratsean, afarian fruituak eta ura izan genituen, esklaboek salbu; haiek, ohituraren arabera, ez zuten deus jan behar sakrifikatuak izan aitzin; horregatik, hogeit bat esklabo hartzen genituen, bidaiaren bukaeran hamabost inguru gelditzen zirelako, besteak gosez hiltzen baitziren.

Afalondoren gure jantzi ederrenak ezarri genituen eta Quilla ilargiaren jainkosarentzat otoitz egin genuen. Gau hartan Kuzkora heldu nintzela amets egin nuen, han denak ni pasatzen uzteko baztertzen ziren eta txalo egiten zidaten. Gero, tenplu handienera igan nintzen eta denak oihuka hasi ziren. Sakrifikatzaileak bihotza urratu zidan eta ikusleei erakutsi zien. Kolpez, izerditan esnatu nintzen, hatsantua. Behin baino gehiagotan erran

nion neure buruari amesgaizto bat besterik ez zela, baina, halere, ezin izan nuen berriz lokartu. Beharrik, goiza hurbil zen; horrela ez nuen sobera goaitatu beharrik izan txabolatik ateratzeko. Egun ederra zen; iduriz, Inti umore onez jaiki zen; gainera, nire zerbitzariak gosaria prestatua zidaten. Erregina bizia maitatzen hasia nintzen, denak nire zerbitzuko ziren eta nik ez nuen deus egin behar, momentuko.

Egun hartan asko ibili ginen; momentu batez arroila batera ailegatu ginen. Banekien nolakoa zen; amatxik askotan aipatu zidan. Bidaiako parte garrantzitsu bat zen, zeharkatzea biziki arriskutsua izaiten ahal baitzen. Guk, Inkek, bagenuen metodo bat: arroilaren bi bazterretan arbola enbor sendo batzuk ezarri genituen eta harriz inguratu ez erortzeko. Gero, soka batekin lotu genituen eta, horrela, otarre baten gainean alde batetik bestera joaiten ahal ginen.

Denak ni baino lehen pasatu ziren. Ohiturak agintzen zuen bezala, garrantzi gutien zutenak pasatu ziren lehenik. Beraz, ni azkena pasatu nintzen. Amatxik arrazoi zuen: otarrean nintzelarik beldurrak airean nintzen; zer atsegina beste aldera iragaitearekin!

Gure bidaiak segitu genuen gaua heldu aitzin, eta orduan lo egiteko toki bat atzeman genuen. Aldi hartan ez genuen txabolarik egin, denbora eskasez. Halere, nik banuen arbola baten aterpean egoiteko eskubidea, erregina nintzelako. Bat-batean euria hasi zuen jauts ahala. Orduan sakrifika-

gaiak nire arbolaren azpian gerizatu zituzten; ez zuten busti behar, haien larrua hondatuko zen eta ez ziren aski ederrak izanen Kuzkon sakrifikatzeko! Une horretan haiekin mintzatzeko gogoia izan nuen. Banekien erregina batek ez zuela hain inportantzia gutiko pertsonekin mintzatu behar, baina haiek ezagutzeko gogoia nuen. Haiek ez zuten lehenik mintzatzeko eskubiderik. Nik hasi nuen elkarrizketa:

–Nondik zatozte, galdetu nien.

–Gu Nazcas-ak gara, erantzun zidan haietako batek, Inken aurkako gerla batean preso harrapatuak izan gara eta geroztik zure populuaren esklabo gara.

Mintzatu zitzaidan mutikoa itxura ederrekoa zen; obsidianazko begiak zituen, ongi marraztutako ezpainak eta, bereziki, nire aita zenak bezalako ile beltzak. Aspaldi hila zen nire aita eta bere irudia ez nuen gogoan, haren ile beltzez bakarrik oroitzen nintzen. Hala, mutiko hori ikustek hunkitu ninduen. Malko batzuk jin zitzaizkidan begietara, baina ez nuen negar egin, erreginek ez dute behin ere negar egiten.

Isilune bat izan zen; ondoren beste galdera bat egiteko gogoia izan nuen:

–Zer eragiten du beste populu batekoek beren jainkoen alde sakrifikatuko zaituztela jakiteak?

Hor, lehen aise mintzatu zitzaidan mutikoa pixka bat trabatua zela sentitu nuen. Ez da egunero erreginari bere sentimenduak erraiteko aukera izaiten! Hala ere erantzun zidan:

–Bat-batean, eraiki nuen guzia erortzen dela iruditzen zait: emaztea, haurra... denak kenduak izan zaizkit. Nire biziak ez duela gehiago balio izpirik iruditzen zait. Orain laster hilko naiz eta nire heriotzagatik negar egiteko ez da inor izanen. Gainera, nireak ez diren jainkoentzat sakrifikatua izanen naiz!

Erran zuenak biziki hunkitu ninduen; momentu hartan bakarrik ohartu nintzen esklaboak ere giza-kiak zirela eta haiek ere sentimenduak zituztela. Lehenago ez nuen behin ere esklabo bat pertsonatzat hartuko. Elkarrizketa hark begiak ireki zizkidan.

Bat-batean, euria gelditu zen eta eguzki eder bat argitzen hasi zen, mirakuluz bezala. Nire zerbitzarietako bat arribatu zen eta barkamenak eskatu zizkidan esklaboekin egon behar izan nuelako. Nik ez zela deus, momentu goxo bat pasatu nuela erantzun nion; harridura kausitu nuen haren begietan; esklaboaren ezpainetan, aldiz, irriño bat ikusi nuen.

Biharamunean, kanpamenduan egoitea erabaki genuen. Ez bainuen deus egiteko, bezperan ezagutu nuen esklaboa ikustera joan nintzen. Arbola baten azpian egoki zen pentsaketa. Harengana hurbildu nintzen eta mintzatzeko gogoia nuela aitortu nion. Ez zen errefusatzera ausartu. Lehenik bere izena galdetu nion. Naco deitzen zela erran zidan, baina Inken menpe zenetik denek Unpa deitzen zutela. Berak Naco deitzea nahiago zuen; bere lehenagoko bizia oroitarazten zion. Orduak

eta orduak egon ginen mintzatzen. Ez genuen denbora pasatzen ikusten. Momentu batez, bere ametsa zein zen galdetu nion. Sinpleki erantzun zidan: “Bizi nahi nuke.” Erantzun hori entzutea biziki zaila izan zen niretzat; ohartu nintzen “bizitza” ez zela inorentzat ametsa izan behar; beraz, erabaki nuen haren ametsa egia bihurtuko nuela. Berdin zitzaidan legeak haustea, nire lagun bat salbatuko nuen. Halere, populua ados ez bazen ezin nituen gizakien sakrifizioak kendu. Nire buruari hitz eman niona egitea gero eta zailagoa iruditzen zitzaidan; ez nintzen segur lortzeaz, baina ahal nuen guzia egiten nuen!

Nacori agur esan eta zutitu nintzen. Biharamunean ikustera joanen nintzela hitz eman nion.

Egunak joan eta egunak etorri, Kuzkorako bidaiaria aitzina zihoan, eta ez ginen bakarrik bidean aitzinatzen ari... Naco eta nire arteko adiskidetasuna egunero pixka bat handitzen zen; ez ginen gehiago lagun sinpleak, egiazko adiskideak ginen! Egunero mintzatzen nintzen berarekin, gero eta gauza barnekoagoz mintzatzen ginen. Amatek hil zenetik nire bihotzean sentitzen nuen hutsunea bete zuen Nacok. Ez nintzen gehiago bakarrik...

Banekien Kuzkotik hurbiltzen ari ginela. Ez nuen gogorik hara heltzeko, zeren, han, gizakien sakrifizioak ez egitea zaila izanen baitzen. Erabaki nuen ez gehiago horretan pentsatzea, Nacorekin gelditzen zitzaizkidan momentuak baliatzeko gisan.

Gaua iritsi zelarik, biharamunari pentsatzen hasi nintzen eta ohartu nintzen ezin nintzela bizi beti geroko utziz gizakien sakrifizioen ezeztapena. Beraz, Kuzkora ailegatu bezain laster populuari mintzatzea erabaki nuen. Inkek beren ohitura aldatu nahi ez bazuten ez nintzen gehiago borrokatuko, zeren Machu Pichutik Kuzkoraino bidaia luzea egina zuten sakrifizioengatik. Beraz, nahi zutena erabakitzeko eskubidea zuten.

Goiza jin eta lainoa altxatu zelarik, Kuzkoko harresi handiak ikusten ahal ziren. Egun bat edo biren buruan gure bidaia bururatuko zen eta ni eta Nacoren arteko adiskidetasuna ere bai beharbada. Nire laguna hiltzen bazen, ez nekien zer bilakatuko nintzen; nire lagun hoberena zen, bakarra. Hiltzen bazen ez nuen jakinen zer egin.

Zalu ibili ginen eta arratsa baino lehen Kuzkoko atera ailegatu ginen. Han, atezainak atea ireki eta ongi etorriak ginela erran zigun. Herriaren edertasunak harritu ninduen. Ez nekien halako toki ederrik izan zitekeenik: tenpluak erraldoiak ziren, Machu Pichun baino bi aldiz handiagoak; jendeak ongi beztituak ziren eta edergailuekin apainduak. Dena urrez betea zen: lurreko eskulturak, tenpluetako harmailak eta bereziki jainkoen irudiak.

Arratsean tenplu handi batean lo egin genuen, txabolekin ezin konparatua zen. Denak lo zirelarik Naco ikustera joan nintzen, harekin mintzatzeko beharra nuen... Elkar ikusten genuen azken aldia zen beldur nintzen. Haren logelara ailegatu nintzelarik, negarrez aurkitu nuen; heriotzak beldur

emaiten ziola aitortu zidan. Haren kexadura partekatzen nuen; ez nuen nahi hil zedin. Gau osoa elkarrekin pasatu genuen eta momentu batez, biharamunean populuari mintzatzeko asmoa nuela erran nion. Muxu bat eman zidan. Hor, zutitu nintzen eta erran nion: “Ikus arte, mundu honetan ez bada bestean elkar ikusiko dugu, eta hitz emaiten dizut betirako zurekin egonen naizela.” Gelatik atera bezain laster negarrez hasi nintzen; erreginek ere batzuetan ezin dituzte beren sentimenduak alde batera utzi!

Biharamun goizean jende guzia jantzi ederrenekin zen: presoak sakrifikatzeko presatuak ziren. Denak tenplu nagusi aldera joan ziren. Ni hara igan eta sakrifizioak hasten zirela erraita besterik ez zen falta. Tenplura igan nintzen, baina ez ohiko gauzak erraitera:

–Gaur hemen erranen dizuedana ez da guziz espero duzuen! Nik pentsatzen dut gizakien sakrifizioak ez direla egin behar. Badakit betitik egin izan ditugula, baina bidaia honetan ohartu naiz sakrifikagaiak ere jendeak direla, haiek ere sentimenduak dituztela; gu bezalakoak dira eta, horregatik, ez dute hiltzea merezi.

Isilune luze bat izan jendeen artean, baina ez zuen luzez iraun. Batek oihukatu zuen:

–Ulertzen dut sentitzen duzuna, badakit gizakiak direla, baina mundua sortu denetik Inkek sakrifizioak egiten ditugu eta gizakien odolari esker da eguzkia egunero jaikitzen. Beraz, urte honetan ere eguzkiaren egarria ase behar dugu!”



Gizonak erran zuenarekin ados zen populu guzia. Momentu hartan ulertu nuen ezingo nuela deus egin Nacoren heriotza saihesteko. Orduan, neure buruari hitz eman nion bezala, ez nintzen tematu.

Tenplutik jautsi nintzen eta Naco ikusi nuen; sakrifiziorako prestatzen zuten. Niregana hurbildu eta belarrira xuxurlatu zidan: “Beti maitatuko zaitut, nire azken egunak zoriontsuak bilakarazi dituzu. Nire bihotzean egonen zara santa sekulako.” Eskua hartu eta ganibeta eman zidan; banekien Nazcasentzat ganibetek garrantzi handia zutela; biziki hunkitua izan nintzen; begietatik malko bat isuri zitzaidan eta Nacoren esku gainera erori zen. Begiratu niolarik, haren begi dirdiratsuetan irriño bat ikusi nuen; bederen uros eta maitatua hilko zen...

\* \* \*

“Istorio hori kontatu behar nizun zure aitatzirene oroitzapenez. Eta orain lo egizu: bihar zure erregina bizia hasiko da, Kuzkorako bidea hartuko duzu...”